

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMI

Jolasak

6 zbk.

2005eko maiatzaren 8a



Lumaneko kideak ume ziren garaian, ez zen apenas jostailurik. Hala ere, ez zuten aspertzeko denborarik izaten, irudimena landuz eurek asmatzen eta osatzen baitzituzten jolasak eta jostailuak.

Gehien-gehiena, txingoa, soka-saltoa eta tabaketa gustatzen zitzairen neskei, baita koxinaketa eta panpinekin ibiltzea ere. Mutilei, berriz, kanikak, txiba eta pilota, batez ere. Kartaketan, esku-jolasetan edo irudimenezko bestelako jolasetan ere igarotzen zuten denbora. "Barre asko egiten genuen eta edozein txorakeriarekin igarotzen genuen arratsaldea. Petrilean eseri eta zen-

bat automobil pasatzen zen kontaktzen ere aritzen ginen. Automobil horia eta beltza igarotzen bazen, zapiari lau korapilo egiten genizkion ertzetan, zorte ona emateko. Oso gutxi pasatzen ziren, ordea. Jostaketak asmatu egiten genituen. Beharra zegoen eta. Askotan hotzak-edo erdi kuzkurtuta geundela, zaharragoren bat etorri eta 'segi saltoka' edo 'korrika' esaten zigun. Beharko. Ez arroparik genuen, ez oinetarik... Zer edo zer egin behar genuen berotzeko".

Zerrenda luzea osatu dugu garai hartako jolasekin. Jolastu nahi al duzu?

BIXIKETAN, PANPINEKIN EDO GOITIBERAN?

Bixiketan edo dendaketan esaten zioten, bazkaria prestatzen edo jakiak saltzen jolasteari. Neskak ibiltzen ziren batik bat. Platera zaharrak eta eltze txikiak erabiltzen zituzten jolaserako. Jakiak irudikatzeke, hainbat belar edo lore hartzen zituzten. "Malma belarrak, lore arrosa ematen du. Lorea galtzean, gaztaren itxurako kozkorra geratzen da. Kozkor horrek, gazta irudikatzen zuen gure jolaseko dendan". Gainerakoan, hosto ezberdinak ere jartzen zituzten dendan salgai, "zegoenarekin, harrapatzen genuenarekin osatzen genuen denda". Panpinak, aurren-aurrenekoak, kartoizkoak izan ziren; "euriak harrapatuz gero, akabo. Aurpegiko margoa joan egiten zitzairen". Gainerakoan, trapuekin egiten zituzten panpinak. "*Fabricación propia*" dio Pellok. "Trapuekin egiten genituen muñekak. Beso, hanka eta guzti! Hankaren bat puskatuz



Jabier Berasaluze

"Goitiberan, Amasako aldapatik behera jaisten ginen Villabonara"

gero, beste trapuren bat jarri eta kitto!". Ez zuten oraingo panpinen antzera, barrerik edo negarrik egingo. Oraingoak baino maiteagoak ziren, hala ere. Panpinak egiten, ikasi ere egiten zuten garai hartan, "izugarritzko ilusioarekin josten genituen muñekarentzako soinekoak edo jertseak. Aitzakia horrekin josten ikasten genuen. Muñekari bolantedun soinekoak egiten zizkio-

nik ere bazen, hara!". Garai hartan ez zen ez jostailuzko kotxerik, ez kamioirik, ez traktoririk... "Gurpilen bat edo biribilen bat topatzen bagenuen, askotan harekin ibiltzen ginen gustura, 'raaaaaaa' aurrera eta 'raaaaaaa' atzera". Gaztetan, goitiberak erakitzen zituzten, "lau egur puska eta hiru errodamentu hartu eta, aurrera! Goitiberan, Amasako aldapatik behera jaisten ginen Villabonara. Askotan Salvadora papertegiaren atarian amaitzen genuen ibilbidea" dio Jabierrek. Berdura plazan lasterketak egiteko, patineteak ere eraikitzen zituzten gazteenek. Kontu bitxiagorik ere bada, "Berdura plazaren ondoan, garbitokia zegoen garai batean. Herriko emakume ugari biltzen zen bertan. Garbitokiaz gain, putzua ere bazegoen ondoan eta txalupak egiten genituen egurraren eta sokaren laguntzaz, uretan ibiltzeko".

TXOKOKETAN, PILOTA AIREAN

Mutilak gehixeago ibiltzen baziren ere, neska askok ere oso gogoko zuen pilotarekin jolastea. Eskolako errekreoan txokoka edo txokoketan jolasten zuten askotan. Eskuz aritzen zen lagun taldea. "Falta egiten zuena kanpora. Bukaerara bi lagun iristen ziren eta irabazten zuenak, bi puntu jasotzen zituen. Gainera, kale egiten zuenak, hurirengo txandan ere jolasean jarraitzen zuen". Eskolako errekreoetan nahiz bestela ere jolasten zuten txokoketan, "Iarunbatetan edo igandetan ere berdin ibiltzen ginen. Hogei bat lagun elkartuko ginen akaso plazan. Asko

ginenez, ezin genuen pilota partidarik jokatu, ondorioz, txokoketan ibiltzen ginen". Modu horretan, jende gehiagok hartzen zuen parte jolasean. Orduko pilotek ez zuten egungoekin zerikusirik, norberak egiten zuen bere pilota. "Geronek egiten genituen pilotak. Txori-mukia gereziandoei adarretan sortzen zaion kozkorra da, gomaren modukoa, bigun-biguna. Harekin bola egin eta amari, izebari edo amonari eskatutako hariarekin biltzen genuen. Botea izaten zuten pilota haiek" gogoratu dute barrezka. Beste batzuek, kortxoak erabiltzen zuten pilo-



taren oinarrian eta hariarekin bakarrik pilotak egiten zituenik ere bazen. Batzuek besteek baino zorte hobea zuten pilotak egiterakoan, "gure osabek larruzko mantalak erabiltzen zituzten sutegian lanerako. Haien

mantal zaharrak ebaki eta larrua josi izan nien nik pilotei. Halaxe, larruzko pilota!" dio Pellok. Garai hartan, ondo gogoan dute bai, hari zipiritinak zintzilik zituen pilota asko ikusten zen plazan. "Polita zen hura, bako-

tzak berak egindako pilota hartu eta, jolaser!" . Maritxuren etxean, esponjazkoa izan zen, harizkoen ondoren, lehen pilota; "Amalluko Luzianok emandako pilota izan genuen guk, esponjazkoa, goxo-goxoa".

PELOTA ENVENENADA 'K HARRAPA EZ ZAITZAN

'Pelota envenenada' esaten zioten jolasean ere asko jolasten zuten. "Lurrean arraia bat egin eta haren atzean jartzen ginen. Hiru obalu izaten ziren lurrean marraztuta eta arraia baino atzerago, pertsona bat. Pertsona horrek pilota bota eta arraiaren atzean zegoenetako batek eskuz jotzen zuen. Bitartean, pilota jo zuena obaluz obalu korrika abiatzen zen eta pilota hartu behar zuenak, obalura ailegatu aurretik pilotarekin jo egin behar zintuen. Lortzen bazuen, jokoak galdu egiten zenuen eta kanpora atera behar izaten

zen. Lortzen ez bazuen, berriz, libre geratzen zinen". Korrika bakarra zebilenean, errazagoa izaten zen jotzea baina, hiru jartzen zirenean, zein mugituko zen eta zeini tira behar zion pentsatuz, zailagoa izaten omen zen. Bukaerara hiru pertsona iristen ziren arren, bakarrak irabazten zuen. Mojen eskolako patioan asko jolasten zuten joku horretan baina, baita beste edozein tokitan ere: "Nonahi jolasten genuen. Bost, sei edo hamar lagunek... Elkartzten ginen guztiek". Pilotaren eta kantuaeren arteko jolasak ere

uztartzten zituzten: *Con una mano, con la otra mano, al te-pe-te. Atrás y adelante, con una rodilla, con la otra rodilla, a la redondilla, un besito adelante.* Pauso guztiak pilota airean zegoen bitartean egin behar zituzten. Esku batekin aurrena, bestearekin ondoren. *Te-pe-te* esatean, txaloak egiten zituzten. Atzera eta aurrera gero. Belaun batekin lurra jo aurrena, bestearekin gero. *Redondilla* esatean, buelta eman eta aurrera pausoa eman ondoren, musua eman bukatzeko. Ez da abildade gutxi beharko, ez horixe!

BALOIAK LARRUZKOAK, PITOIDUNAK

Egungo hurrek eta gazteek, denek baloia-ekin jolasten dutela ikusten dute hizlari-ek. Orduan ez zen baloirik; zuenak, berak egindako pilota zuen baina, baloirik, oro har, ez. Lehen baloia Agustin Aizpuruak ekarri zuen herrira eta denak haren atzetik ibiltzen ziren, hura noiz etorriko zain. "Larruzkoak ziren baloi haiek. Haizez betetzeko pitoidunak. Trentza moduko zintzilikario bat zuten lotzeko. Behin puztutakoan, barrura sartzen zitzaion muturra. Bustitzen zirenean berebiziko pisua hartzen zuten, ez ziren hemendik horraino ere ailegaten" diote, tarte labur-laburra irudikatuz. "Bazterrerajoan eta haizez betetzen ibiltzen ginen. Puztutan edo lokatzetan sartuz gero, a ze kuxidadeak izaten ziren". Kolore ilun-ilunekoak ziren lehen

baloi haiek. Kontu handiarekin ibili behar izaten zuten gainera, "kopetarekin jotzeko beldurrez ibiltzen ginen. Jostura hark harrapatuz gero, burua ebaki igual!". Futboleant jokatzeko ohitura handirik ez zen orduan. Hala ere, hainbat gazte ibiltzen zen lagunene do auzokideen artean. "Zubiaurre baserritik plazara bitarteko gazteak batetik, eta plazatik elizara bitartekoak bestetik; bi talde osatzen ziren auzo arteko txapelketarako. Futbol partidak plazan jokatzten ziren. Ez geneukan porteriari-rik, noski, eta norberaren jertseekin moldatzen ginen" gogoratu du Jabierrek. Elizondo futbol taldea deitzen zioten Jabierrek eta bere lagunek osatzen zuten taldeari; izena, elizaren ondoan asko jokatzten zutelako zetorkien. Aldizkariaren azaleko iru-

diko lagunak ziren Elizondoko taldekideak: Goian, Jose Luis Iribarren, Juanito San Sebastian, Anjel Egiño eta Frantzisko Mendiluze. Erdian, Jabier Berasaluze, Anjelito Ugarte eta Juantxo Garmendia. Behean, Antton Lertxundi, Ramon Ugarte eta Benantxio Lertxundi.



Pello Iribar

"Kopetarekin jotzeko beldurrez ibiltzen ginen. Jostura hark harrapatuz gero, burua ebaki igual!"

LAU IZKINATARA, ZUHAITZ ARTEAN

Zuhaitz artean ere jolasten zuten. "Bost lagun, lau zuhaitzen artean jarri eta batetik bestera abiatzean, erdikoak harrapatu egin behar zintuen". Jolas horretarako ez zuten pilotaren beharrik izaten, "zuhaitzez zuhaitz igaro behar zen batetik bestera baina, erdikoak harrapatzen bazintuen,

erdian geratu behar zenuen". Jolas horretan aritzeko leku egokia zein zen argitu du Isabelek, "Villabonako Saizar etxeak zituen lau zuhaitzak oso onak ziren jolas horretarako. Lauki polita osatzen zuten. Hantxe ibiltzen ginen batetik bestera korrika pasaz".



Isabel Beraza

"Villabonako Saizar etxeak zituen lau zuhaitzak oso onak ziren jolas horretarako"

SOKA-SALTOAN, SALTOKA-SALTOKA

Gehien jolasten zuten jolasetako bat soka-saltoa zen. Kamioan zehar, Andoaineraino joaten ziren soka-saltoan. Etxeberrieta auzoan futbol partida ikusi eta buelta berriz saltoka, txandan-txandan. "Kotxea datorrela!!" norbaitek buila egiten zuzenean, bazterrereta etorri eta jarraitu egiten genuen gero". Era askotara ibiltzen ziren sokarekin: Sokari fuerte edo lasai eraginez, kale egin arte batzuetan, salto kopuru jakin bat eginez bestetan. Banaka edo binaka aritzen ziren saltoka, txandakatuz edo segidan. Kanpo-kanpo ere ibiltzen ziren; kale egiten zuenak, galdu egiten zuen jokoa eta kanpora atera behar izaten zuen, jokoa utziz. Orduan jolaserako kanta ia guztiak gaztelaniazkoak ziren.

'Soy la reina de los males' kantuan abesten zituzten hitzak gauzatu egiten zituzten saltoka ari ziren bitartean. Hizlariak gogon dute kantua: *Soy la reina de los males/ un día no puede ser/ eché el pañuelito al suelo/ y después a recoger*. Zapia lurrera bota eta gero, harrapatu egin behar izaten zen, sokarik galdu gabe. Kantuak jarraitu egiten zuen "eta segi egin behar zenuen zure zapiarekin bukatu arte" dio Maritxuk: *Pañuelitos, pañuelitos/ guardaditos en el bolsillo/ que no bailarás/ cojita con un piee*. "Eta salto haiek hanka baten gainean egiten genituen". Kantatu, soka ematen ari zirenek kantatzen zuten. Saltoka ari zenak, berriz, kantuak esandakoa egin behar zuen. Hori bai,



saltoka ari zena, nahastu edo galdu egiten bazen, soka ematera igarotzen zen. Era berean, 'Al cocherito lere' kantua ere nahi-koia salto egindakoak dira hizlariak. Salto eta makurtu, salto eta makurtu... Kantu hori gaur egungo haurrek ere abesten dute. Egundakoa, badu euskarazko bertsoa ere.

A LA KINKIRRIÑERA ETA ZUBIRI-ZUBIRI

Lagunak eskutik lotuta, korroa osatu eta saltoka, norberaren izena entzundakoan jiratzeta ez da egungo jolasa. *Lumaneko* kideak ere jolasten zuten 'A la kinkirriñera' n. *A la kinkirriñera/ a la xamurrena/ plaza berriko/ jira hadi beste aldera*. Partaide guztiak buelta ematen zutenean, elka-

ri ipurdiarekin joka ibiltzen ziren. 'Zubiri-zubiri' jokoa ere ez du azalpen handirik behar, egun bezalaxe jolasten zuten: *Zubiri-zuriril/ nungo de nungo/ nungo alkate zera del/ Frantziako errege baten/ seme alabak gerald*. *Hurrun-hurrunal/ zubi hontatik pasatzen denal/ hemen geldituko denal/ hemen gel-*

dituko daaaa. Barruan egokitzen zenak, txokolata edo muñeka edo beste aukeraren bat egin ondoren, zegokionaren atzean jarri eta soka-tiran bezala amaitzen zuten gerritik tiraka. Bi joko horietara umetan jolasten zuten, "ume-jokoak ziren, zokortutakoan ez genuen horretan jolasten".

TABAKETAN, PILOTAREN LAGUNTZAZ

Garai hartako umeek eta, batik bat, neskek, tabaketa jolasten zuten, gehien. Orain ez da apenas jolas hori ikusten baina, hizlariak oso gogoko zuten orduan. Ardiak, ahuntzak, ahariak edo arkumeak hankean duten hezurra da taba eta animalia horietakoren bat akabatutakoan, gogoz jasotzen zituzten. Tabak izateko aukera, ez zen orain adinakoa. Hori dela eta, egokitutakoan, ondo gordetzen zituzten hezurtxoak. Behin eskuratutakoan, betirako izaten zirela gaineratu dute. "Hezu-

rrari, taba esaten genion guk. Gerora kulkuluxa esaten bazioten ere" argitu du Pepitak. Tabak, ahal zutenek, margotu ere egiten zituzten, "izugarritzko ilusioarekin, gorritz, berdez edo geneukan kolorez margotzen genituen, ahal genuenean. Denak ez, kolorezko tabak zituena, distingitua izaten zen, gero!". Lau tabekin eta pilota txiki batekin jolasten zuten tabaketa, "abilak ginen orduan, ene!". Poltsan, zorroan itxita, gustura ateratzen ziren kalera tabekin. Arkumeen tabekin jolasten zuten gehienetan, "arkumearen hezurra ez da ondo eginga egoten, gaineko azala joan egiten baitzaio. Ahariarenak hobeak ziren, hezurrak ondo osatuta baitzuten". Gehienetan, hala ere, arkumeenarekin ibiltzen ziren. Jolasteko modua ere azaldu dute, pilota gora bota eta airean zegoen bitartean, tabak zutik jartzen zituzten. Tabak zutik jarri eta pilota eskuan hartu be-

har zuten bueltan. Jokoa polita izateaz gain, abildade handia behar zela azaldu dute, "oso joko ona zen. Argi ibiltzeko lagundu egiten zuen. Momentuko jokoa zenez, ba al dakizu ze erreflexu eskatzen zuten? Izugarritzko abildadea zuten batzuek". Lehenengo tabak banaka hartzen zituzten, gero binaka, hirunaka eta launaka, azkenik. Hamabi puntura jokatzeko



Pakita Lasa

"Oso joko ona zen. Argi ibiltzeko lagundu egiten zuen"



zuten. Hamabi puntura iristean, jokoa bukatzeko, gurutzean jartzen zituzten lau tabak eta "krixkitin, kraxkitin, arrosa, krabelin" esaten zuten. Hori guztia pilota

airean zegoen bitartean, noski! Pilota botatzerakoan, eskuan izaten zituzten lau tabak eta, pilota airera botatzen zutenean, orduan botatzen zituzten tabak ere. "Ta-

bek alde batetik zuloa dute eta desiatzen egoten ginen tabak, zuloaren aldetik gera zitezten; bestela, zutik jartzea, gehiago kostatzen baitzen".

TXINGOKETAN, MARMOL PUSKA HARTUTA



**Pepita
Lasa**

"Harriak marra ukitzen bazuen, hankarekin disimuloan, laukiaren barrura sartzen saiatzen ginen"

Karoliña eta teila puskekin marrazten zuten txingorako taula lurtean. Bi eratara marrazten zituzten laukiak; gurutze itxurako taula batetik, eta azken laukia boro-bilduta zuena, bestetik. Gehienetan zazpi lauki marrazten zituzten. Harria bota eta hanka baten gainean egiten zuten salto, harria zegoen laukia ukitu ere egin gabe.

"Marra zapalduz gero kalera eta harriak laukia ukitzen bazuen, jokaldiak ez zuen balio". Txingoan jolasteko arauak zorrotzak zirela aipatu dute. Baina, orduan ere, tranpa txikiak egiten zituzten, "harriak marra ukitzen bazuen, inor konturatu gabe, hankarekin disimuloan, laukiaren barrura sartzen saiatzen ginen" argitu du Pepitak. Leku askotan jolasten zuten txingoketan; mojen eskolan, Amasako eta Villabonako plazan, arkupetan, eliz atarian, harri-losazko espaloietan eta kamioan ere bai "orain adinako automobilik ez zen eta". Isabelek, etxeko eskaratzean ere ibiltzen zirela esan du eta Pepitak, etxeko sukaldean ere bai. Txingoketan, alpargata ugari urratu zutela ere aipatu dute, "beti alpargatak konpondu eta konpondu. Nonbait galipota bigun samarra ikusten



baguenen, han igurtzi egiten genituen, zorua pixka bat gogortzeko". Txingoan jolasteko harria ere ondo aukeratzen zuten, ahalik eta politena aurkitzen saiatzen ziren. Askotan, Portu lantegiaren ondora joaten ziren marmol pusken bila. Fabrika hartan, losa eta marmola lantzen zituzten, baldosak egiteko.

BULEKETAN, POTE-POTEKA ETA HARRAPATZEN

Buleketan edo gordeketan ere jolasten zuten ume haiek. Bat hogeiraino kontatzen geratzen zen bitartean, gainerakoak gorde egiten ziren. Haiek non ziren, aurkitu egin behar izaten zen gero. Gordetakoren batek 'bule' esaten bazuen, berriz ere, berberak kontatu behar izaten zuen, "'zu berriz betetzera'. Betetzea esaten genion kontatzeari". Betetzen zuenak, norbait harra-

patzen bazuen, 'bule' edo 'fallo' eta haren izena esaten zuen. Pote-poteka ibiltzea ere gazte haien gogoko jolasa zen. Tomate pote hutsak harrika bota eta bien bitartean, gorde egiten ziren gaztetxoak. Potea zenbat eta urrutiago bota, orduan eta denbora gehiago izaten zuten gordetzeko. Hogeira edo berrogeira zenbatzea egokitu zitzaionak, zenbatzen amaitu eta gero, potearen bila joan

eta gordetakoak aurkitzea izaten zuen lana. "Iluntzetan jolasten genuen asko pote-poteka". Bestalde, batak bestea korrika harrapatzea ohiko jolasa zen orduan ere. "Arropak puskatuz ibiltzen ginen. Ia-ia harrapatu zenuelakoan, kolpea egin eta konturatu gabe, askotan puskatzen ziren arropak. 'Begira zer egin didazun!' erdi negarez, behin baino gehiagotan".

UZTAIA, SEGI-SEGIKA

Neskaren batzuk ere bai baina, mutilak ibiltzen ziren, batik bat, uztaiarekin jolasean. Bizikletaren llanta baldin bazen gustura, bestela, barrifoiaren, garai hartako egurrezko baldearen ipurdiko aroarekin ibiltzen ziren. Alanbreari forma eman eta harekin bultzatuz, gustura asko gainera! "Iruraraino igual joaten ginen uztaiarekin. Kotxerik ez zen pasatzen eta!". Joko haren muina, uztaia zuzen

ibiltzea zen. Ez zen hain erraza, ez. Hala ere, bazituen bere trukuak, "aldapan behe-hera bazindoazen, alanbreari buelta eman eta frenatu egiten zenuen. Kirtenaren muturreko alanbreak, 'u' moduko bat egiten zuen eta frenatu behar izanez gero, buelta eman eta ttak, geratu egiten zen". Ez frenatzea erabakiz gero, abiada bizkorrean ibili behar izaten zuten.



TXORROMORROKA, BATA BESTEAREN GAINEAN

Lau lagun makurtuta jartzen ziren, eskuekin batak bestea eutsiz, animalia baten gisan. Jolaseko gainerako kideek, *Txorro-morropiko-tallo-ke. María subiré?* esaten zuten eta makurtutakoek, *Sube!* esatean, makurtutakoekin bizkar gainera salto egiten zuten kide batek. Salto egin zuenak, kantuan jarraitzen zuten: *Si me hubieses dicho dos edo tres...*, jolasten ari zirenen kopurua- *más o menos no estarías tanto tiempo ahí abajo*. Bizka-

rrean joz, *De colín, de colán, dela dela dela dan, del palacio a la cocina, cuantos dedos hay encima?* esan eta makurturta zegoenak, asmakizuna argitu behar zuten. Izan ere, behatz bakoitzak, txorro, morro, piko, tallo edo ke izena zuen. Makurtutakoekin zegoenak, behatz bat altxatzen zuten. Azpikoek zein behatz altxatu zuen asmatzen bazuen, libratu egiten ziren. Bestela, berriz ere behean egotea egokitzen zitzairen. Horre-

la, segidan, batak bestearen atzetik egiten zuten salto.



KANIKAK, LURREZKOAK ETA KRISTALEZKOAK

Garai bateko limonada botilla txikiek barruan izaten zuten kanika, "hura izateko desiatzen egoten ginen". Kanika mota ezberdinak zeuden, koloretako kristalezkoak ziren gehien balio zutenak, neurri ezberdinetakoak zeuden, gainera. Lurrezkoak ziren merkeenak. Limonada botilletan etortzen zirenak, kristalezkoak ziren. Kanika haren presioaz ixten zen botilla eta kanika izatekotan, botilla puskatu egin behar izaten zen. Lurrezko kanikak, denak tamaina berekoak izanagatik, kolore ezberdineko-



Maritxu Gonzalez

"Batzuk gustura joaten ziren irabazitako kanikekin etxera. Galdu zutenak ez hain pozik

ak ziren, batzuk marroiak, besteak urdinak... Baina, prezio bera zuten. Ondo jotako kolpe bat nahikoa izaten zen kanikarik gabe geratzeko. Bi erataria jolasten zuten kaniketara: Gehien jolasten zuten modua, kanika bota eta besteak harrapatzea izaten zen. Kanika joz gero, 'kixku' esaten zen. Kanika jo eta esku harraren tartean geratzen baldin bazen, berriz, 'kixku eta harra'. Azken aukera hori gertatuz gero, jo zue-

narentzat izaten zen kanika. Harra egitea, lehen behatzetik azkenekora dagoen tartean kanika sartzea izaten zen. Behatzak ahal zen bezala luzatzen ahalegintzen ziren, lortzen ez bazuten, bai baitzekiten zein zen ordaina: Kanika bat ez, bi eman behar zitzaizkion 'kixku eta harra' egin zuenari. "Golf jokuan bezala, kalkulatu egin behar zen kanika hemendik hara, gutxi gorabehera, botatzen. Indar handiegia emanez gero, nahiz eta 'kixku' jo, zabaldu egiten ziren. Gu, 'kixku' egin bai baina, kanika ahalik eta gertuen geratzen saiatzen ginen" azaldu du Pellok. Batik bat, modu horretan jolasten bazuten ere, txuloketan ere aritzen ziren tarteka. Lurrean zuloa egin eta kanika bertan sartzea izaten zen jolasaren muina. "Kaniketan dena jokoa zen. Batzuk gustura joaten ziren irabazitako kanikekin etxera. Galdu zutenak ez hain pozik" dio Maritxuk.

KROMOAK ETA TXAPAK

Hizlarietako batzuek oso gogoko zuten kromoekin jolastea, besteek ez horrenbeste. Txokolatateak ekartzen zituen kromoak, "batzuetan kolore batekoak eta bestetan, bestekoak". Eskuarekin joz, buelta ematen saiatzen ziren. Galtzen zuenak, kromoa eman behar izaten zion irabazleari. "Hori bai, hori horrela izaten da". Kaxatxo batean gordetzen zituzten kromoak eta kaletik etxera, gehiagorekin edo gutxiagorekin etortzen ziren. Txapetan jolasteko ohitura, berriz, geroago etorri zela aipatu dute hizlariak. "Orduan ba ote zen txaparik?" ez dute oso garbi gogoratzen. Txapaketan ez baina, txan-

ponekin, zentimoekin, jolasten zutela adierazi eta erakutsi egin du Pellok. Txanpona paretaren kontra botatzen zuen lehenak eta hurrengoak tiratzen zuenean, lurrean, ondoko txanpona esku-harrarekin harrapatzea jolasten zuten. "Gogoz tiratzen ziren txanponak, intentzioarekin". Harrarekin harrapatzen zuenarentzat izaten zen zentimoa. Joko horretan ere ez zen txantxarik izaten beraz, "itxoin pixka bat" esan eta, behatzetatik tiraka aritzen ginen ahalik eta luzera handiena har zezaten". Lehengo zentimo txikiarekin jolasten zuten, "zeinek izaten zuten ba orduan hamar zentimokoa?".

"Joko hori mutilena zen, guk ez genuen sekula horretan jolasten" aipatu dute neskek. Txanponekin igandetan jolasten zuten ia beti, arrazoia argia; "paga jaietan eman-go ziguten eta!".



MAKIL JOLASAK, HARRI KOZKORRAK ETA PLATERA PUSKAK

Lurrean makilekin ere aritzen ziren jolasean, "buelbaka, hara eta hona arrastaka ibiltzen zuen batek makila eta gainerakoek, salto egiten genuen haren gainetik". Saltoa egiterakoan, huts egiten zuenari egokitzen zitzaion hurrena makila bueltaka ibiltzea.

"Soka-saltoaren antzera, huts egiten zenean galdua". Zuhaitzak botatzen zituztenean, lurrean topatzen zituzten adar mehenekin jolasten zuten. Orduan izaten zen bolada. Harri kozkorak eta platera puskak ere baliatzen zituzten jolaserako. Hogeitaharri koz-

kor edo platera puska eskuetan hartu, gora bota eta erortzerako, eskuaren ifrentzuarekin harrapatu behar ziren. Lurrera erortzen zirenak, eskuaren gainekoak bota gabe jaso behar ziren lurretik. Puskaren bat erortzen bazen, galdu egiten zen jolasa.

TXIBA, YO-YOA ETA DIABOLOA

Txibarekin ere behin baino gehiagotan jolastutakoak dira solaskideak. Txiba bota eta lurrean bueltaka ibiltzea ez zen lorpen makala. Gehiago saiatzen zirenak, eskuan ere hartzen zuten. Txiban ere, iaioak asko ziren. Egurrezkoak ziren txibak eta burnizko muturra zuten; txuriak gehienak, horiak gutxiago, "mutur horia zutenak inportanteak izaten ziren, garestiagoak ziren eta". Lokarriarekin bueltatzen zituzten, egungoak bezalaxe. Orain, ume gutxi ikusten dute txibarekin jolasean, "orduan txiba zuenak, ondo zaintzen zuen. Ez pen-

tsa guztien eskura zegoenik!". Gaur egungoen batere antzarik ez zuten yo-yoekin ere jolasten zuten. "Botoiekin egiten genituen. Bi botoi handi elkarrekin josi eta, hariarekin inguratzen genuen. Baldarragoak ziren, motelagoak baina, ibiltzen ginen bai". Ez zuten abiadura bizia hartuko baina, norberak egindako jolasekin ibiltzeak ez du meritua gutxi! Txiki-txikitan ez baina, pixka bat kozkortutakoan, diaboloarekin ere jolasten zuten. Tornillo batekin lotutako gomazko oinarria gora bota eta egurrearekin eutsitako sokarekin harrapa-

tzuten zuten beheerakoan. "Oraingoak egokiagoak dira. Gureak torpeak ziren oso".



BIZIKLETA, KUBIERTARIK GABEA

Umetan ez zuten bizikletarik izan hizlariek, "herrian ez zen inor bizikletan ikusten, orduan ez zegoen bizikletarik". Zizurkildik, Asteasutik edo inguruko herrietatik etortzen zirenak, egun bizikletan edo motoan egiten duten bezala, oinez etortzen ziren lehen, "zeinek zuen bizikleta edo motoa? Inork ez. Gaur egun ibilbide luzeak diruditenak, oinez egiten genituen lehen, normal-normal". Pelok soldadutzara joan arte, ez zuen ezagutu bizikletarik etxean, "nik ez nuen ezagutu baina, gure etxean, *Muttua*

bizi izan omen zen lehen, *Perratzaileneko Muttua*. Hark, Peugeot markako hiru bizikleta ekarri omen zituen Frantziatik. Igandetan alkilerrean jartzen zituen. Bizikleta haiekin ikasi omen zuten Villabonan, txanpona zutenek. Nik ere haietako batekin ikasi nuen urte dezente geroago". Gazteagotan bai, bizikleta bakanetan txandaka ibiltzen ziren. "Nik bizikletan ibiltzen, neronek bakarrik, llantarik gabeko bizikletan ikasi nuen, kubiartarik gabekoan, anaiarenean" azaldu du Maritxuk. Pakita eta lagu-

nak, Sacem aldera joaten ziren bizikletan ibiltzen ikastera, bizikleta bakarrean txandaka ibiltzen ziren.



TIRAGOMAK ETA HERRI KIROLAK

Txoriak harrapatzeko erabiltzen zituzten batik bat tiragomak. "Nahikoa arriskuak ziren. Burdinezko zati txikiak jaurtitzen genituenez, gaizki apuntatuz gero, aberi handiak egin zitezkeen". Zaku-karreran, lokotsak biltzen eta antzeko jola-

setan baserrian bizi zirenak ibiltzen ziren, batik bat. Kulunpioak ere baserri gehienetan izaten ziren, zuhaitzen adarretatik zintzilik, "bi soka zintzilikatzen ziren adarretik eta soka hark minik ez egiteko, zakuren bat-edo jartzen zen esertzeko.

Arriskutsua ere bazen, sokak joan-etorrian, egurra gastatu egiten baitzuen. Eserita zegoena ez zen konturatu ere egiten, ordea. Gainera, izugarritzko abiada hartzen zuen, zuhaitzari buelta emateko moduko indarra".

ANTZINAKO JOLASAK ETA EGUNGOAK

Hizlariak, euren jolasteko moduak eta egungoak oso ezberdinak direla azaldu dute, "oraingo umeek ez dakite jolasten. Denetik dute eta aspertu egiten dira. Guk, berriz, ez geneukan ezer eta edozer gauzarekin ibiltzeko ilusioa genuen. Ez genuen aspertzeko denborarik izaten. Makina horiekin ibiltzen dira orain, bakarka, etxean sartuta. Gu kalean ibiltzen ginen inguruko lagunekin batera. Gauza gutxi nahikoa genuen pozik ibiltzeko. Ostegun arratsaldetan eskolatik jai izaten genuenez, Otsabira joaten ginen kantuan. Hango errekan hankak busti, boka-

dilloa jan, txalburu-harrapaketa ibili eta kontentu etxera. Berebiziko gauza egin genuela iruditzen zitzaigun". Villabonako eskola publikoetan, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen zituen apaiz bat bazen, herriko mutikoek oso begi onez ikusten zutena, "on Salbador apaizak, inguruko herrietara irteerak antolatzen zituen ostegun arratsaldetan; Zizurkilera, Alkizara edo Anoetara. Pilota edo futbol txapelketak izaten ziren bertan. 40-50 bat mutiko joaten ginen, bakoitza bere bokadilloarekin. Partida jokatu, merienda-tu eta buelta etxera" pozik baino pozikago,

gainera. Gaztetan asko abesten zutela ere gogoran dute, "asko abesten genuen gaztetan eta, oro har, asko abesten zen lehen. Leihoak irekita, etxeko lanak egiten ari zen emakume asko aritzen zen kantuan. Kalean zindoazela, asko aditzen zen etxeetatik zetorren kantua". Jolasetara itzuliz, orduko jolasen kantua ia guztiak gaztelaniaz ziren. "Batzuk gehiago konturatuko ziren baina, orain konturatzen naiz ni zein esanahi zuten letra haiek. Kantatu egiten genuen baina, zer esaten genuen jakin gabe. Ai ama!" esanaz amaitu du Maritxu.



Jabier Berasaluze



Pello Iribar



Isabel Beraza



Pakita Lasa



Pepita Lasa



Maritxu Gonzalez

Iribarrea ahoan gogoratu dituzte ume eta gaztetxo garaiko jolasak, *Lumaneko* lagunek. Aspertzeko tarterik ez zuten izaten eta beharrak erakutsita, egun baino gehiago lantzen zuten irudimena. Garrantzitsua da hori, ezbairik gabe. Agian garai bateko jolasak egunera ekartzeko gogoia piztuko zitzaion norbaiti. Aurrera ba!

...ETA HURRENGOAN ZER:

Kirola eta apustuak izango dira mintzagai zazpigarren zenbakian. Erreboteaz joan zen apirilean hitz egin genuen arren, futboleko edo txirrindularitzan ere, amasarrek eta villabonatarrek abilak zirela ezin ahaztu. Herri-kiroletan ere ez ziren atzean geratzen, ez horixe! Aizkora, harrijasotzea... Ohiko frogen artean, idi-demek tradizio handia zuten, besteak beste. Villabonako plazaren erdian harrizko bidea zegoen idiak igarotzeko. Baina amasarren eta villabonatarren artean izaten al zen bes-telako apusturik? Horren guztiaren berri jakin nahi izanez gero, ez galdu ekaineko zenbakia irakurtzeko aukera. Ordura arte, segi ondo!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Lartamendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA